



Hitzarmena

Aretxabaletako Udala eta GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA Elkartearen artekoa

Bildurik:

Alde batetik, ARANTZABAL, ARRIETA, IBAN jauna/andrea, NAN 72455964F duena, adinez nagusia, GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA Elkartearen izenean (IFK zkb. F20704375) eta ordezkartzan.

Eta bestetik, Garikoitz Iturbe Etxebarria jauna, NAN 72457054Q duena, Aretxabaletako Udaleko Alkate- Lehendakaria, Udalaren izenean (IFK zkb: P2001400G) eta ordezkari duena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta zera

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 272016 Legearen 17. artikulua jarraituz, Udalaren eskumena(k) da/dira:

- "Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin".

BIGARRENA: Goiena Komunikazio Taldeak honako xedea du:

Bailaran egoitza eduki eta herriko bizilagunei, bailarako gainontzeko bizilagunei bezala, zuzenduta dagoen Euskarazko hedabideari finantzazioan laguntzea.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



HIRUGARRENA: 2026ko ekainaren 8an aurkeztutako idatziaren bidez Goiena Komunikazio Taldeak bere jarduna burutzeko dirulaguntza eskatu dio Aretxabaletako Udalari. Eskabidearekin batera diruz lagundu nahi diren jardueri buruzko memoria aurkeztu du.

LAUGARRENA: Goiena Komunikazio Taldeak ez dauka debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

BOSGARRENA: Aretxabaletako Udaletik jasotako dirulaguntza gastu arruntetarako bakarrik erabiliko da.

SEIGARRENA: Aretxabaletako Udalak onartuta duen dirulaguntzen 2025-2027 eperako plan estrategikoan, besteak beste, honako hau jasotzen da:

Dirulaguntzaren izena: Goiena komunikazio taldearekin dirulaguntza hitzarmena

Xedea: Bailaran egoitza eduki eta herriko bizilagunei, bailarako gainontzeko bizilagunei bezala, zuzenduta dagoen Euskarazko hedabideari finantzazioan laguntzea.

Udalak zer lortu nahi duen:

- Tokiko ikuspuntu batetik euskararen erabilera eta zabalkundea bultzatu herrian.
- Informazioarekin eta aisialdiarekin lotura duten produktuen kontsumoa lagundu.

Norentzat: Goiena Komunikazio Taldea

Ematekoaren modalitatea: Izendun dirulaguntza zuzena.

Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa: 62.827,32€ 1.0510.481.335.00.03.2026 (286) partidaren kontura.

Hori guztia dela eta, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

KLAUSULAK

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Alde bien arteko hitzarmen honen helburua da 2025. urtean Goiena Komunikazio Taldeak egiten duen lana diruz laguntzea ondorengo bete ahal izateko:

Bailaran egoitza eduki eta herriko bizilagunei, bailarako gainontzeko bizilagunei bezala, zuzenduta dagoen Euskarazko hedabidea izatea. Besteak beste, ondorengo zerbitzuak eskainiz: Goiena Aldizkaria eskatutako etxe guztietan izateko aukera, Goiena Telebistaren seinalea herrigunera zabaltzea, Puntua aldizkaria harpidedunei banatzea eta goiena.eus atarian momentu oroko informazioa jasotzea.

BIGARRENA: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo geratzen da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA: Goiena Komunikazio Taldearen betebeharrak.

Goiena Komunikazio Taldeak 2026. urtean zehar antolatuko dituen ekintza guztietan Aretxabaletako Udala babesle gisa azalduko da. Horrenbestez, argitaratzen dituen kartel, euskarri eta antzekoetan Udalaren logoa agertuko da, Udal honek diruz laguntzen duela adieraziz.

Dirulaguntzen kudeaketan Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartuko ditu, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaion informazio guztia emango du.

Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeelako.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



Goiena Komunikazio Taldeak jasoko duen dirulaguntza bakar bakarrik dirulaguntzaren xederako erabiliko du.

Dirulaguntza zurituko du, eta ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza itzuli beharko du.

LAUGARRENA: Aretxabaletako Udalaren betebeharrak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2026. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorritik, Goiena Komunikazio Taldeari 62.827,32 euroko dirulaguntza ematen zaio 1.510.481.335.00.03.2026 (286) partidaren kontura, jarraian adierazitako moduan:

57.000 euroko zenbatekoa hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da, ordainketa aurreratu gisa, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diru laguntzaren azken ordainketa, 5.827,32 euro, onuradunaren justifikazioa jaso ondoren egingo da, diru laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatutakoan.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua betez, Udalak datuen bitartekaritza- plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta egingo die Elkarteak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkarteak ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

Aurka eginez gero, elkarteak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko ditu, eta kontsultaren aurka egiteko arrazoiak adierazi beharko ditu.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikartzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindiko eta nazioarteko administrazioetatik jasotako beste edozein laguntzarekin edo dirulaguntzarekin.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hala gertatuko balitz, elkarrekin dirua itzuli egin beharko luke dagokion proportzioan.

ZAZPIGARRENA: Genero-berdintasuna.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzekoan, Goiena Komunikazio Taldeak ezingo du hizkera sexistarik erabili dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereizita jasoko ditu.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



Goiena Komunikazio Taldeak ezingo du inolako dirulaguntzarik jaso honako kasuetan:

1. Bere xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistemak, funtzionamenduak, ibilbideak, jardunak, antolamenduak edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun- printzipioa urratzen badute.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatua izan bada, sexu-arrazoiak direla-eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratzeagatik.
3. 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak ezarritako betekizunak betetzen ez baditu.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, emakume edo emakume-taldeen bereizkeria eragiten duten jarduerak, izan sexuagatik izan diskriminazio anitzeko faktoreengatik, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

ZORTZIGARRENA: Jarraipena batzordea

Hitzarmenaren jarraipena egiteko alde bien artean osatutako jarraipen batzordea eratuko da eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzorde hau alde bietako edozeinek eskatzerakoan batzartuko da hitzarmena betetzeko egon daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

BEDERATZIGARRENA: Dirulaguntzaren zuriketa.

Goiena Komunikazio Taldeak jasotako funtsen erabilera egokia zuritzeko konpromisoa hartzen du.

Zuriketa hori, nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan eta lege honen

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



Erregelamenduaren 72. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, eta 2026ko abenduaren eguna baino lehen aurkeztu beharko da Aretxabaletako Udaletxean, erregistro elektronikoko bidez, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Jardueren azalpen memoriaz gain, egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

1. Jardueren azalpen memoria aurkeztuko du 2026ko lehen hiruhilekoan.
2. Horretaz gain, 2026ko maiatzaren 31a baino lehen aurkeztuko du egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:
 - a) Jardueren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
 - b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan sartuta daudenak, eta hala badagokio, horien ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
 - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
 - d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Dena den, memoria ekonomikoaren ordezkari Goiena Komunikazio Taldeak kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek egindako urteko kontu laburtuen auditoretza txostena aurkeztu ahal izango du.

3. Dirulaguntza gastu korrienteetarako erabili dela adierazten duen ziurtagiria aurkeztuko du 2026ko maiatzaren 31a baino lehen.

HAMARGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



Hitzarmen hau indarrean egongo da azken sinaduraren egunetik 2026ko abenduaren 31 arte. Berau aldatzeko alderdien aho bateko adostasuna beharko da.

HAMAIKAGARRENA: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa betetzeko, aplika daitekeen guztian.

HAMABIGARRENA: Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde bien aho bateko akordioa.
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoa gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

- d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaritzen duen erabaki judiziala.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db



HAMAIRUGARRENA: Jurisdikzioa.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMALAUGARRENA: Gardentasun ataria.

Hitzarmena Udalaren gardentasun atarian argitaratuko da.

Eta jasota gera dadin, adostasuna adierazteko, aldeek elektronikoki izenpetzen dute hitzarmen hau, eta azken izenpetzailearen data hartzen da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, Iban Aranzabal Arrieta
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQ549N.v2Db